

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 764/2008/EE ERREGELAMENDUA
2008ko uztailaren 9koa, beste estatu kide batean legalki merkaturatzen diren produktuei arau tekniko nazional
jakin batzuk aplikatzeko prozedurak ezartzen dituena, eta 3052/95/EE Erabakia baliogabetzen duena.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «REGLAMENTO (CE) N° 764/2008 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 9 de julio de 2008, por el que se establecen procedimientos relativos a la aplicación de determinadas normas técnicas nacionales a los productos comercializados legalmente en otro Estado miembro y se deroga la Decisión n° 3052/95/CE» (*Diario Oficial de la Unión Europea, L 218/2 de 13/8/2008*)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 764/2008/EE ERREGELAMENDUA

2008ko uztailaren 9koa,

beste estatu kide batean legalki merkaturatzen diren produktuei arau tekniko nazional jakin batzuk aplikatzeko prozedurak ezartzen dituen, eta 3052/95/EE Erabakia baliogabetzen duena

(Testu egokia EEeri dagokionez)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNAREN KONTSEILUAK

Europar Batasuna Eratzeko Tratatua eta, bereziki, 37. eta 95. artikulua aztertu dituzte,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute ⁽¹⁾,

Kontsulta egin diote alde zuzenetik Eskualdeetako Komiteari,

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki ⁽²⁾,

Honako hau kontuan hartuta:

(1) Barne-merkatua barne-mugarik gabeko esparrua da, eta bertan bermatuta dago, Tratatuak xedatutakoari jarraiki, salgaien joan-etorri askea, inportazioekiko murrizketen baliokideak diren neurriak debekatzen baititu. Debeku horren barne dago salgaien merkataritza, benetakoa edo potentziala, zuzenean edo zeharka oztopa dezakeen edozein neurri nazional.

(2) Legedia harmonizatu gabe dagoenez, estatu kideetako erakunde eskudunek estatu kideen artean salgaien joan-etorri askea oztopa dezakete legez kanpo, besteak beste, beste estatu kideetan modu legalean merkaturatutako produktuen kasuan, horiek bete beharreko baldintzak xedatzen dituzten arau teknikoak ezartzen baitituzte; besteak beste izendapenari, formari, tamainari, pisuari, osaketari, aurkezpenari, etiketazeari eta ontziratzeari buruzkoak. Horrelako arauak beste estatu kideetan modu legalean merkaturatutako produktuei aplikatzea Tratatuaren 28. eta 30. artikuluen aurkakoa izan daiteke, arau tekniko horiek produktu guztietan aplikatu arren.

(3) Europar Erkidegoen Justizia Auzitegiaren jurisprudentziaren ondorioz aitortutako elkarrekiko aitortpenaren printzipioa barne-merkatuan salgaien joan-etorri askea bermatzeko baliabideetako bat da. Elkarrekiko aitortpena aplikatzen da harmonizaziorako Erkidegoko neurriek arautzen ez dituzten produktuetan, edo harmonizaturako neurri horien barne sartzen ez diren aplikazio-esparruetako produktuetan. Printzipio horren arabera, estatu kide batek ezin du debekatu bere lurraldean beste estatu kide batean modu legalean merkaturatutako produktu bat saltzea, bere estatu-mailako arau-teknikoen arabera fabrikatu ez bada ere. Printzipio horrekiko salbuespen bakarrak dira Tratatuaren 30. artikuluan xedatutako arrazoiek justifikatutakoak, edo interes orokorreko premiazko arrazoiak, lortu nahi den helburuarekin zerkusia dutenak.

(4) Estatu kideek elkarrekiko aitortpenaren printzipioa aplikatzeko arazo asko daude oraindik. Beraz, prozedurak ezarri behar dira estatu kideen artean salgaien joan-etorri askea oztopatzen duten neurri ilegalak sortzen dituzten arau teknikoak ezartzeko aukerak ahalik eta gehien gutxitzeko. Estatu kideetan horrelako prozedurarik ez dagoenez, salgaien joan-etorri askerako beste oztopo batzuk sortzen dira, enpresek estatu kide batean modu legalean merkaturatutako produktuak ezin baitituzte saldu arau tekniko horiek aplikatzen diren estatu kidean. Inkestek agerian jarri dute enpresa askok, eta bereziki enpresa txiki eta ertainek (ETE), beren produktuak egokitzen dituztela estatu kide horietako arau teknikoak betetzeko, edo bestela ez dituztela beren produktuak estatu kide horietan merkaturatzen.

(5) Erakunde eskudunek ere ez dute prozedura egokirik beste estatu kide batean legalki merkaturatutako produktu zehatzei beren arau teknikoak aplikatzeko. Horrelako prozedurarik ez dagoenez, ez dira gai Tratatuaren arabera produktuen egokitasuna ebaluatzeko.

(6) 1999ko urriaren 28an emandako Ebazpenean, elkarrekiko aitortpenari buruzkoan ⁽³⁾, Kontseiluak aipatu zuen eragile ekonomikoek eta herritarrek ez dutela beti elkarrekiko aitortpenaren printzipioa erabat eta modu egokian erabiltzen, ez baitute printzipio hori behar beste ezagutzen, ezta printzipio horren ondorio eraginkorrak ere. Halaber, estatu kideei eskatu zien

(1) C 120 EO, 2008.5.16koa, 1. or.

(2) Europako Parlamentuaren irizpena, 2008ko otsailaren 21koa (Egunkari Ofizialean oraindik ere argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko ekainaren 23koa.

(3) C 141 EO, 2000.5.19koa, 5. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

beharrezko neurriak hartzen jarraitzeko, era horretan, eragile ekonomiko eta herritarrei elkarrekiko aitortpenarako esparru eraginkor bat eskaintzeko, besteak beste, eragile ekonomiko eta herritarren eskaerak modu eraginkorrean aztertuz, eta eskaera horiei ahalik eta azkarren erantzunez.

(7) 2007ko martxoaren 8 eta 9ko Kontseilu Europarrak azpimarratu zuen oso garrantzitsua zela elkarrekiko aitortpenaren bitartez salgaien barne merkatuari bultzada berri bat ematea, aldi berean segurtasun-maila handia bermatuz eta kontsumitzaileak babestuz. 2007ko ekainaren 21 eta 22ko Kontseilu Europarrak aipatu zuen barne-merkatuko lau askatasunak (salgaien, pertsonen eta zerbitzu nahiz kapitalen joan-etorri askea) finkatzea lortzea eta merkatu horren funtzionamendua hobetzea ezinbestekoak izaten jarraitzen dutela hazkuntza, lehiakortasuna eta lanpostuak edukitzeko.

(8) Barne-merkatuak salgaientzako arazorik gabe funtziona dezan, baliabide eraginkor eta gardenak behar dira estatu kide batzuek beste estatu kide batean merkaturatutako produktu jakin batzuei aplikatzen dizkien arau teknikoek sortzen dituzten arazoak konpontzeko.

(9) Erregelamendu honek, barne-merkatua hobetzeko asmoz, ez du arau teknikoen harmonizazio handiagoa gutxitu behar.

(10) Merkataritzarako oztupoak sor daitezke bestelako neurrien ondorioz ere; besteak beste Tratatuaren 28. eta 30. artikuluen aplikazio-esparruan kokatutako ondorioz. Neurri horien artean daude kontratazio publikorako prozeduretan edo estatu kideetako hizkuntza ofizialaren erabilera-betebeharen esparruan ezarritako prozeduretarako baldintza teknikoak. Hala ere, neurri horiek ez dute osatu behar Erregelamendu honen ildoan arau tekniko gisa osatzen den araurik eta, beraz, ez dira horien aplikazio-esparruan aplikatu behar.

(11) Erregelamendu honen ildoan, arau teknikoak alde aurretiko derrigorrezko baimenaren prozeduraren bidez aplikatzen dira batzuetan, hain zuzen ere estatu kide batek bere legedian ezarritako bidez, produktua edo produktu mota estatu kide bateko merkaturatutako zati batean sartu baino lehen; estatu kide horretako erakunde eskudunak azken onarpena eman behar dio produktu horri, alde aurretik horretarako eskaera jaso ondoren. Horrelako prozedurek salgaien joan-etorri askea mugatzen dute. Beraz, alde aurreko derrigorrezko baimena behar duen prozedura bat barne-merkatuko salgaien joan-etorri askearen funtsezko oinarriaren arabera justifikatuta egon dadin, Erkidegoko legediak onartutako interes orokorra izan behar du helburu, ezin da baztertzaila izan eta, gainera, proportzionatua izan behar da; hots, lortu nahi den helburua benetan lortzen dela bermatu behar du, eta baita helburu hori lortzeko beharrezko esparrutik harago ez dela joango ere. Justizia Auzitegiaren jurisprudentzia hartzen da kontuan, prozedura horrek proportzionaltasun-printzipioa betetzen duen ebaluatzeko.

(12) Erregelamendu honek xedatutakoaren arabera, alde aurretiko baimen-baldintza bat ez da arau tekniko bat. Beraz, produktu bat merkaturatik at uzten edo hortik ateratzen duen erabaki bat, alde aurretiko derrigorrezko baimenik ez duelako hartzen bada, ez da Erregelamendu honek arautzen duen erabaki bat. Hala ere, produktu baterako derrigorrezko alde aurretiko baimenaren eskaera bat aurkeztean, arau teknikoetan oinarrituta hura ukatzeko asmoa badago, erabaki hori Erregelamendu honen arabera arautu behar da, era horretan, eskatzaileak Erregelamendu honetan aurreikusitako prozedura-babesa eska dezan.

(13) Erregelamendu honen aplikazio-eremutik at geratu beharko dute estatu kide batean modu legalean merkaturatutako produktuei hirugarren estatu kide bateko merkaturatutako sartzan uzten ez dieten produktuei buruzko gaiak diren erabakitzen duten organo jurisdikzionalak hartutako erabakiek, edo arau tekniko bat aplikatzeagatik jarritako zigorrak.

(14) Pertsonen osasuna eta segurtasuna arrisku handian jar dezaketen produktuak dira armak, eta estatu kideen segurtasun publikoa arriskuan jartzen dute. Pertsonen osasuna eta segurtasuna babesteko, eta delinkuentziari aurrea hartzeko, estatu kide batean legalki merkaturatutako arma-mota batzuk arauen bitartez mugatuta egon daitezke beste estatu kide batean. Neurri horiek berariazko kontrolak izan daitezke, baita alde aurreko baimenak ere, era horretan, estatu kide batean legalki merkaturatutako armak beste estatu kide batean sartu ahal izateko. Beraz, estatu kideei beren mugen barneko merkaturatutako armak sartzan ez uzteko baimena eman behar zaie, arma horiek estatu mailako baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatuta.

(15) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2001/95/EE Zuzentarauak, 2001eko abenduaren 3koak, produktuen segurtasun orokorrari buruzkoak ⁽¹⁾ xedatutakoaren arabera, merkaturatutako produktu seguruak bakarrik sar daitezke, eta ekoizle nahiz banatzaileek produktuen segurtasunaren esparruan bete beharreko obligazioak ezartzen dituzte. Zuzentaru horrek eskubidea ematen die agintariei produktu arriskutsu bat berehala debekatzeko, edo produktu bat aldi batean debekatzeko; baldin eta ikuskapenak, egiaztapenak eta segurtasun-ebaluazioak egiteko beharrezko epean arriskutsua izan badaiteke. Halaber, Zuzentaru horrek eskubidea ematen die agintariei, produktuak oso arriskutsuak badira, beharrezko neurriak lehenbailehen hartzeko, esaterako 8. artikuluko 1. paragrafoko b) eta f) idatz-zatien artean xedatutakoak hartzeko, beharrezko ekintzak egiteko. Beraz, Erregelamendu honen aplikazio-eremutik at geratzen dira Zuzentaru horretako 8. artikuluko 1. paragrafoko d) eta f) idatz-zatien artean xedatutakoak eta 8. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoa dela bide estatu kideetako erakunde eskudunek estatu mailan aplikatzeko hartutako neurriak.

(1) L 11 EO, 2002.1.15ekoa, 4. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(16) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 178/2002 (EE) Erregelamenduak, 2002ko urtarrilaren 28koak, elikagaien legedirako oinarri eta baldintza orokorrak xedatzen dituenak, Elikagaien Segurtasunerako Europako Erakundea sortu du, eta elikagaien segurtasunari buruzko prozedurak ezartzen ditu ⁽²⁾. Erregelamendu horretan, besteak beste, sare bat ezartzen da elikagai edo pentsuek, zuzenean edo zeharka giza osasunean sor ditzaketen arriskuak azkar jakinarazteko. Erregelamendu horrek xedatutakoaren arabera, jakinarazpenak azkar egiteko esparru horretan, estatu kideek Batzordeari jakinarazi beharko diote, giza osasuna babesteko helburupean, elikagai edo pentsuak merkatuan ez sartzeko edo horiek merkatutik erretiratu edo errekupezteko hartutako edozein neurri, ekintza azkarra behar duena. Beraz, Erregelamendu honen aplikazio-eremutik at geratzen dira 178/2002 Erregelamenduko 50. artikuluko 3. paragrafoko a) idatz-zatian xedatutakoa eta, 54. artikuluan xedatutakoaren arabera, estatu mailan aplikatzeko estatu kideetako erakunde eskudunek hartutako neurriak.

(17) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 882/2004 (EE) Erregelamenduak, 2004ko apirilaren 29koak, pentsu eta elikagaien legedia eta animalien osasun eta ongizateari buruzko erregelamendua betetzen direla egiaztatzeke egin beharreko kontrol ofizialei buruzkoak ⁽³⁾, kontrol ofizialak egiteko arau orokorrak ezartzen ditu, era horretan zuzenean edo ingurumenaren bitartez animalia eta pertsonen aurkako arriskuak saihestu, ezabatu edo maila onargarrietara gutxitzeke arauak betetzen direla egiaztatzeke; eta, horrez gain, pentsu eta elikagaien merkataritzak jardunbide orekatuak bermatzeko eta kontsumitzaileen interesak babesteko. Neurri horien barne daude pentsu eta elikagaien etiketatzea eta kontsumitzaileari informazioa emateko bestelako modalitateak. Erregelamendu horrek prozedura zehatz bat xedatzen du, pentsu eta elikagaien nahiz animalien osasun eta ongizatearen esparruan legedia betetzen ez bada, eragile ekonomikoak egoera hori konpontzen duela bermatzeko. Beraz, Erregelamenduko 54. artikuluan xedatutakoaren arabera, estatu kideetako erakunde eskudunek hartutako neurriak Erregelamendu honen aplikazio-eremutik at geratzen dira. Hala ere, arau tekniko nazionaletan oinarrituta, erakunde eskudunek hartu edo hartzeko asmoa duten neurriek ez badute eraginik 882/2004 (EE) Erregelamenduko helburuetan, Erregelamendu honek xedatutakoaren arabekoak izan beharko dute.

(18) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004/49/EE Zuzentarauak, 2004ko apirilaren 29koak, Erkidegoko trenbideen segurtasunari buruzkoak (trenbideen segurtasunari buruzko Zuzentarauak) ⁽⁴⁾, material birakaria martxan jartzeko baimena emateko prozedura ezartzen du, eta arau nazional jakin batzuk aplikatzeko aukera ematen du. Beraz, Zuzentaru horretako 14. artikuluan xedatutakoaren arabera, Erregelamendu honen aplikazio-eremutik at geratzen dira erakunde eskudunek hartutako neurriak.

(19) Kontseiluaren 96/48/EE Zuzentarauak, 1996ko uztailaren 23koak, abiadura handiko Europa barneko trenbide sistemaren elkarrengarritasunari buruzkoak ⁽⁵⁾, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2001/16/EE Zuzentarauak, 2001eko martxoaren 19koak, Europa barneko trenbide sistemaren elkarrengarritasunari buruzkoak ⁽⁶⁾, sistemak eragiketak bateratu egin behar direla zehazten du, sistema barneko elkarrengarritasunerako zehaztasun teknikoak pixkanaka ezarriz. Beraz, Erregelamendu honen aplikazio-eremutik at geratu behar dute Zuzentaru horien aplikazio-eremuaren barne dauden sistema eta elkarrengarritasun elementuek.

(20) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 765/2008 (EE) Erregelamenduak, 2008ko uztailaren 9koak, produktuen merkaturatzearen esparruan, egiaztapen- eta jagoletza-baldintzak ezartzen dituenak ⁽⁷⁾, egiaztapen-sistema bat ezartzen du egokitasuna ebaluatzen duten erakundeen eskumen-maila elkarren artean onartzen dela bermatzeko. Beraz, estatu kideetan eskumena duten erakundeek ezingo dituzte egokitasuna ebaluatzen duten organismoek egindako saiakera-txostenak eta ziurtagiriak ukatu, horien eskumen-eza dela-eta. Gainera, Erkidegoko legediaren arabera, estatu kideek egokitasuna ebaluatzeke beste organismoek egindako saiakera-txostenak eta ziurtagiriak ere onar ditzakete.

(21) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 98/34/EE Zuzentarauak, 1998ko ekainaren 22koak, informazioaren gizarteko zerbitzuei buruzko arauak ezarri eta arau nahiz erregelamendu teknikoetan informazio-prozedura ezartzen duenak ⁽⁸⁾ xedatutakoaren arabera, estatu kide batek edozein produkturi buruz –nekazaritza eta arrantza-produktuak barne- egindako erregelamendu tekniko guztiak Batzordeari eta gainerako estatu kideei jakinarazi behar dizkie, baita erregelamendu hori zergatik hartu duten ere. Hala ere, erregelamendu teknikoak onartu ondoren, produktu jakinen kasuan, ez da bermatu behar elkarrekiko aitopenen printzipioa behar bezala aplikatzen denik. Erregelamendu honek prozedura bat ezartzen du kasu bakoitzerako elkarrekiko aitopenen printzipioa aplikatzeko: erakunde eskudunak produktu jakin bat estatu kide jakin batean zergatik merkaturatu ezin den justifikatu behar du arrazoi tekniko edo zientifikoen bidez, betiere Tratatuaren 28. eta 30. artikuluek xedatutakoaren arabera. Erregelamendu honen testuinguruan, frogia-elementuak ez dira hitz horren zentzu juridikoan ulertu behar.

(2) L 31 EO, 2002.2.1ekoa, 1. or. Azken buruan 202/2008 (EE) Erregelamenduak (L 60 EO, 2008.3.5ekoa, 17. or.) aldatutako Erregelamendua.

(3) L 165 EO, 2004.4.30ekoa, 1. or. Bertsio zuzendua L 191 EOn, 2004.5.28koan, 1. orrialdean. Azken buruan Kontseiluaren 1791/2006 (EE) Erregelamenduak (L 363 EO, 2006.12.20koa, 1.or.) aldatutako Erregelamendua.

(4) EO L 164, 2004.4.30ekoa, 44. or. Bertsio zuzendua L 220 EOn, 2004.6.21ekoan, 16. orrialdean.

(5) EO L 235, 1996.9.17koa, 6. or. 2007/32/EE Erregelamenduak (L 141 EO, 2007.6.2koa 63.or.) aldatutako Zuzentaruak.

(6) L 110 EO, 2001.4.20koa, 1.or. Azken buruan 2007/32/EE Erregelamenduak aldatutako Zuzentaruak.

(7) Ikus Egunkari Ofizial honetako 30. orrialdea.

(8) L 204 EO, 1998.7.21ekoa, 37. or. Azken buruan Kontseiluaren 2006/96/EE Erregelamenduak (L 363 EO, 2006.12.20koa 81.or.) aldatutako Zuzentaruak.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Erregelamendu honen testuinguruan, estatu kideetako erakundeek ez dituzte arau teknikoak berak justifikatu behar. Hala ere, Erregelamendu honek xedatutakoaren arabera, beste estatu kide batean merkaturatutako produktu batean arau tekniko horren aplikazio posiblea justifikatu beharko dute.

(22) Elkarrekiko aitopenen printzipioari jarraiki, Erregelamendu honetan xedatutako prozedurak dioenaren arabera, erakunde eskudunek, eskuragarri dituzten elementu tekniko edo zientifikoetan oinarrituta, dagokion eragile ekonomikoari jakinarazi beharko diote produktu edo produktu-mota horri arau teknikoak aplikatzeko interes orokorreko premiazko arrazoiak daudela, eta ezin direla erabili horren murriztaileak ez diren neurriak. Jakinarazpen hori idatziz egin beharko da eta, horren bitartez, produktu bat merkaturatzen sartzeko hartutako erabakiari buruzko alderdi egoki guztiei buruzko oharrak egin ahal izango ditu eragile ekonomikoak. Ohar horiek jasotzeko epea amaitu ondoren, eragile ekonomikoak erantzunik eman ez badu, erakunde eskudunak eskubidea izango du jarduerak egiten hasteko.

(23) Erregelamendu honetako xedapen batzuetan, *interes publikoko presazko arrazoiak* kontzeptua aipatzen da. Kontzeptu hori garatzen ari da, eta Justizia Auzitegiak garatu zuen Tratatuaren 28. eta 30. artikuluei buruz egindako jurisprudentzian. Kontzeptu horren barne daude, besteak beste, zerga-ikuskatzearen eraginkortasuna, merkataritza-saleroketen zuzentasuna, kontsumitzaileen babesa, ingurumenaren babesa, komunikabideen aniztasunaren babesa, eta gizarte segurantzaren finantza-sistemaren oreka nabarmen ahultzeko arriskua. Premiazko arrazoi horiek direla-eta, erakunde eskudunek arau teknikoak aplikatu ditzakete. Hala ere, aplikazio hori ez da izan behar estatu kideen arteko merkataritzan hautazko bazterketak edo mugaketa ezkutua egiteko baliabide bat. Bestalde, proportzionaltasunaren printzipioa bete behar da beti, baldin eta erakunde eskudunek horren murriztaileak ez diren neurriak hartu badituzte.

(24) Erregelamendu honetan xedatutako prozedura aplikatzean, estatu kide bateko erakunde eskudunak ez du bere merkaturatutako produktu edo produktu-mota baten merkaturatzea ezabatu edo mugatuko. Hala ere, bidezkoa da erakunde eskudunak behin behineko neurriak hartzea, segurtasuna eta erabiltzaileen osasuna ez kaltetzeko, azkar esku hartu behar bada. Erakunde eskudunak behin behineko neurri horiek har ditzake, moralitate edo segurtasun publikoko arrazoiak direla-eta, delinkuentzia saihestea barne, merkaturatzeko erabateko debekua duen produktu bat bere lurraldean ez merkaturatzeko. Beraz, Erregelamendu honetan xedatutako prozeduren edozein fasetan, estatu kideek produktu bat beren lurraldean aipatutako baldintzapean merkaturatzen bada, eten egin beharko dute merkaturatze hori aldi baterako.

(25) Erregelamendu hau aplikatzen den edozein erabakitan zehaztu beharko dira eragile ekonomikoak auzia organo nazional jurisdikzional eskudunari igortzeko eskuragarri dituen errekurso-bideak.

(26) Bidezkoa da eragile ekonomikoari arazoak konpontzeko eskuragarri dituen mekanismo ez-judizialen berri ematea, besteak beste Solvit sistema, ziurtasun-gabezia eta gastu judizialak saihesteko.

(27) Erregelamendu honetan xedatutako prozedura-baldintzen arabera, erakunde eskudun batek, arau tekniko batean oinarrituta, produktu bat merkaturatu kanpo uztea erabakitzen bada, produktu horren inguruan egindako beste edozein ekintza, hain zuzen ere erabaki horretan oinarritutakoa, ez du Erregelamendu honek arautuko.

(28) Salgaien barne-merkaturako garrantzitsua da arau tekniko nazionalak eskuragarri egotea, enpresek, eta bereziki enpresa txiki eta ertainek, indarrean dagoen legediari buruzko informazio zehatz eta fidagarria bil dezaten.

(29) Beraz, beharrezkoa da administrazio-simplifikazioaren oinarriak aplikatzea, besteak beste produktuen harreman-puntuarako sistema bat ezarri. Sistema horren helburua da enpresak informazioa modu garden eta zuzenean ikusi ahal izatea, arau tekniko nazionalak sortzen dituzten atzerapen, kostu eta ondorio disuasorioak saihesteko.

(30) Salgaien joan-etorri askea errazteko, produktuen harreman-puntuek doako informazioa eman behar dute arau tekniko nazionalak buruz, baita produktuei dagokienez, elkarrekiko aitopenen printzipioaren aplikazioari buruzkoa ere. Produktuen harreman-puntuek behar bezala ekipatuta egon behar dute eta, halaber, informazio guztia webgune batean publiko egitea sustatu behar da, Erkidegoko hainbat hizkuntzetan. Produktuen harreman-puntuek Erregelamendu honetako prozedurak egiteko beharrezkoak diren ohar edo informazio osagarria ere eman diezaiakete eragile ekonomikoari. Aipatu berri den informazioa ez den informazio osagarria lortzeko, produktuen harreman-puntuek zerbitzu horren araberrako zenbateko bat kobra dezakete.

(31) Produktuen harreman-puntuak sortzeko ez du oztopatu behar estatu kideetako sistema erregulatzaileetako erakunde eskudunen funtzio-banaketa eta, beraz, estatu kideei utzi behar zaie eskualdeko edo tokiko eskumenen arabera produktuen harreman-puntuak ezartzen. Harreman-puntu gehiegi ez sortzeko, eta prozedura administratiboak errazteko, estatu kideek produktuen harreman-puntuen funtzioa EB mailan ezarritako beste harreman-puntuei eman behar diete. Estatu kideek, produktuen harreman-puntuen funtzioak administrazio publikoko beste zerbitzuei emateaz gain, funtzio horiek emango dizkiete estatu mailako Solvit zentroei, merkataritza-ganberei, erakunde profesionalak eta organismo probatuei ere, era horretan enpresa eta erakunde eskudunentzako administrazio-gastuak ez handitzeko.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(32) Estatu kideak eta Batzordea batera lan egitera animatu behar dira, era horretan, produktuen harreman-puntuetak langileen prestakuntza errazteko.

(33) Administrazio publiko elektronikoaren zerbitzu paneuroparraren garapen eta ez-finkapena kontuan hartuta, baita horren barne, elkarren artean lan egin dezaketen sare telematikoak ere, produktuen harreman-puntuen artean informazioa trukatzeko sistema elektronikoa bat ezartzeko aukera ikusi behar da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004/387/EE Erabakiak, 2004ko apirilaren 21ekoak, administrazio elektronikoko zerbitzu paneuroparrak sektore publikoari, enpresei eta herritarrei eman beharreko zerbitzu elkarreragileei buruzkoak (IDABC) ⁽¹⁾, xedatutakoaren arabera.

(34) Erregelamendu hau aplikatzeko beharrezkoa den informazioa emateko egiaztapen- eta ebaluazio-mekanismo fidagarri eta eraginkorrak ezarri behar dira, era horretan, bateratu edo harmonizatu gabeko sektoreetan, hobeto ezagutzeko salgaien barne-merkatuaren funtzionamendua, eta bermatzeko estatu kideetako erakunde eskudunek elkarrekiko aitopenenaren printzipioa aplikatzen dutela. Mekanismo horiek ez dira joango helburu horiek lortzeko esparrutik harago.

(35) Arau tekniko nazional ezberdinak direla-eta, Erregelamendu honek bakarrik arautzen ditu estatu kideetako merkataritza-oztopoak ezabatzeko xedatutako EB mailako harmonizazio-neurriek arautzen ez dituzten produktu eta produktu-ezaugarriak. Askotan, harmonizazio-neurri horiek nahiko zehatzak dira. Kasu horretan, estatu kideek ezin dute eragotzi harmonizazio-neurri hori betetzen duten produktuak beren merkatuetan sartzeari. Hala ere, EB mailako harmonizazio-neurri batzuk direla-eta, estatu kideak produktu jakin bat beren merkatuan sartzeko baldintza tekniko osagarriak ezar ditzake. Baldintza osagarri horiek Tratatuaren 28. eta 30. artikuluen arabera izan behar dute, baita Erregelamendu honetan xedatutakoaren arabera ere. Beraz, neurri hori modu eraginkorrean aplikatu ahal izateko, komenigarria da EB mailako harmonizazioak arautzen ez dituen produktuen erreferentzia-zerrenda orokor bat egitea Batzordeak.

(36) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 3052/95/EE Erabakiak, 1995eko abenduaren 13koak, Erkidegoan salgaien joan-etorri askearen printzipioan salbuespenak ezartzeko neurri nazionalak elkarren artean jakinarazteko prozedura ezartzen duenak ⁽²⁾, jarraipen-sistema bat ezarri zuen, baina sistema hori alferrikakoa izan da, sistema horren aplikazioak ez baitio Batzordeari informazio nahikorik eman, harmonizazioa zein sektoreetan izan daitekeen komenigarriagoa erabakitzen laguntzeko. Sistema horrek ez ditu azkar konpondu salgaien joan-etorri askeak dituen hainbat arazo. Beraz, 3052/95/EE Erabakia balio gabetu behar da.

(37) Erregelamendu honetan aplikatutako xedapenak aplikatzeko, bidezkoa da behin-behineko epe bat ezartzea, era horretan, erakunde eskudunak xedapen horietara egokitu ahal izateko.

(38) Erregelamendu honen helburua da estatu kideen artean salgaien joan-etorri askea egoteko oztopo teknikoak kentzea. Helburu hori ezin dute estatu kideek bakarrik lortu eta, beraz, ekintzaren dimentsioa edo haren ondorioak direla-eta, hobeto lor daiteke Erkidego mailan. Hori dela-eta, Erkidegoak horretarako neurriak har ditzake, Tratatuaren 5. artikuluan aipatutako subsidiarotasun-printzipioari jarraiki. Artikulu horretan azaldutako proportzionaltasun-printzipioari jarraiki, Erregelamendu hau ez doa helburu horiek lortzeko beharrezkoa denaz harago.

(39) Erregelamendu hau aplikatzeko beharrezko neurriak onartzen ditu Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiak, 1999ko ekainaren 28koak, Batzordeari esleitutako egintza-eskumenak gauzatzeko prozedurak ezartzen dituenak ⁽³⁾.

HONAKO ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

1. KAPITULUA. XEDEA ETA APLIKAZIO-ESPARRUA

1. artikulua

Xedea

1. Erregelamendu honen xedea da barne-merkatuaren funtzionamendua sendotzea, salgaien joan-etorri askea hobetuz.

2. Estatu kide bateko erakunde eskudunek (2. artikuluko 1. paragrafoan xedatzen den moduan) erabaki bat hartu badute beste estatu kide batean Tratatuaren 28. artikuluko araututako eta legalki merkaturatutako produktu bateko joan-etorri askea izateko oztopo izan daitekeena, edo horrelako erabakirik hartzeko asmorik badute, kasu horietan jarraitu beharreko arau eta prozedurak ezartzen ditu Erregelamendu honek.

(1) L 144 EO, 2004.4.30ekoa, 62. or. Bertsio zuzendua L 181 EOn, 2004.5.18koan, 25. orrialdean

(2) L 321 EO, 1995.12.30ekoa, 1. or.

(3) L 184 EO, 1999.7.17koa, 23. or. 2006/512/EE Erabakiak (L 200 EO, 2006.7.22koa 11.or.) aldatutako Erabakia.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

3. Horrez gain, estatu kideetan produktuen harreman-puntuak ezartzea xedatzen du, era horretan 1. paragrafoko helburua lortzen laguntzeko.

2. artikulua

Aplikazio-eremua

1. Erregelamendu hau eragile ekonomikoei zuzendutako erabaki administratiboetan aplikatuko da, baita 2. paragrafoan aipatutako arau teknikoan oinarrituta, hartutako edo hartzeko asmoa dagoen erabakietan ere; horren barne daude beste estatu kide batean legalki merkaturatutako nekazaritza- eta arrantza-produktuak, baldin eta erabaki horren zuzeneko edo zeharkako ondorioa hauetako bat bada:

- a) merkaturatutako produktu edo produktu-mota hori sartzea debekatzea;
- b) produktu edo produktu-mota hori merkaturatu edo mantendu baino lehen, hura aldatu edo horren saiakera osagarri bat egitea;
- c) produktu edo produktu-mota hori merkaturatik erretiratzea.

Lehen paragrafoko b) idatz-zatiari dagokionez, produktua edo produktu-mota aldatzea aipatzen denean, produktu edo produktu-mota horren ezaugarri bat ala bat baino gehiago aldatzea esan nahi du, 2. paragrafoko b) idatz-zatiko i) puntuan aipatzen den moduan.

2. Erregelamendu honi dagokionez, arau tekniko bat estatu kide bateko lege, erregelamendu edo administrazio-xedapen bateko edozein xedapen da, betiere izaera hauetako bat badu:

- a) Erkidego mailan harmonizatu edo bateratu gabe badago.
- b) Arau horrek debekatzen badu estatu kide horren lurraldean produktu bat edo produktu-mota bat merkaturatzea, edo estatu kide horretan derrigorrezkoa bada produktu hori edo produktu-mota hori merkaturatzeko arau hori betetzea, eta arau horrek honakoa xedatzen badu:
 - i) Produktu horrek edo produktu-mota horrek bete beharreko ezaugarriak, besteak beste kalitate-mailak, funtzionamendua, segurtasuna edo tamaina, baita produktu hori edo produktu-mota hori saltzeko izenak, terminologiak, sinboloek, saiakerek, saiakera-metodoek, bilgarriak, markaketak edo etiketatzeak bete beharreko baldintzak.
 - ii) Produktu horrek edo produktu-mota horrek bete beharreko beste edozein baldintza, baldin eta produktuaren bizi-zikloan eragina badu, hain zuzen ere hura merkaturatu edo ondoren kontsumitzaileak edo ingurumena babesteko; edo produktu hori erabili, birziklatu, berrerabili edo ezabatzeko edozein baldintza, baldin eta baldintza horiek produktuaren edo produktu-motaren izaera edo merkaturatzean eragin nabaria badute.

3. Erregelamendu hau ez da elementu hauetan aplikatuko:

- a) Estatu mailako organo juridikozionalek emandako erabaki judizialean.
- b) Polizia-agintariak hartutako izaera judizialeko erabakietan, terminologiari, sinboloei, nahiz izaera arrazista edo xenofoboa duten erreferentzia materialei, konstituzioaren aurkako egintzei edo delitu-egintzei buruzko ikerketak egitean edo delituak jazartzean.

3. artikulua

Harremanak Erkidegoko Zuzenbideko beste xedapenekin

1. Erregelamendu hau ez da aplikatuko 96/48/EE Zuzentarauaren eta 2001/16/CE Zuzentarauaren aplikazio-eremuetan dauden sistema eta osagai elkarreragileetan.

2. Erregelamendu hau ez da aplikatuko estatu kideetako agintariak arau hauek xedatutakoaren arabera hartutako erabakietan:

- a) 2001/95/EE Zuzentarauko 8. artikuluko 1. paragrafoko d) eta f) idatz-zatiak eta 8. artikuluko 3. paragrafoa;
- b) 178/2002 (EE) Erregelamenduko 50. artikuluko 3. paragrafoko a) idatz-zatia, eta 54. artikulua;

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

c) 882/2004 (EE) Erregelamenduko 54. artikulua;

d) 2004/49/CE Zuzentarauko 14. artikulua.

2. KAPITULUA

ARAU TEKNIKO BAT APLIKATZEKO PROZEDURA

4. artikulua

Produktuari buruzko informazioa

Estatu kide bateko erakunde eskudunak produktu baten edo produktu-mota baten ebaluazioa egiten badu, 2. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako erabakirik hartu behar duen zehazteko, hau eskatu ahal izango dio 8. artikuluaaren arabera identifikatutako eragile ekonomikoari, betiere proportzionaltasunaren printzipioa kontuan hartuta:

a) Produktu horren edo produktu-mota horren ezaugarriei buruzko informazioa.

b) Beste estatu kide batean produktu hori legalki merkaturatzen bada, horri buruz erraz eskura daitekeen informazioa.

5. artikulua

Egokitasuna ebaluatzeko ziurtatuta dauden organismoen eskumen-maila elkarri aitortzea

765/2008 (EE) Erregelamenduak xedatutakoari jarraiki, zehaztutako esparru horretan, erakunde hori egokitasuna ebaluatzeko ziurtatuta badago, estatu kideek ezingo dituzte egokitasuna ebaluatzeko organismo batek igorritako ziurtagiriak edo saiakera-txostenak ukatu, organismo horren eskumen-eza dela-eta.

6. artikulua

Arau tekniko bat aplikatzeko premia ebaluatzea

1. 2. artikuluko 1. paragrafoan xedatutakoaren arabera, erakunde eskudunak erabaki bat hartu behar badu, bere asmoak idatziz jakinarazi beharko dizkio 8. artikuluaaren arabera identifikatutako eragile ekonomikoari. Idatzi horretan azaldu beharko du erabaki hori zer arau teknikotan oinarritu duen eta, halaber, froga tekniko edo zientifikoak eman beharko ditu honakoa egiaztatzeko:

a) Aurreikusitako erabakia Tratatuaren 30. artikuluan aipatutako interes publikoko arrazoi batek justifikatzen duela, edo interes publikoko presazko arrazoi bat dagoela.

b) Aurreikusitako erabakia lortu nahi den helburua eskuratzeko egokia dela, eta ez dela hori lortzeko esparrutik haragokoa.

Aurreikusitako edozein erabaki produktuaren edo produktu-motaren ezaugarrietan oinarritu beharko da.

Eragile ekonomikoak, jakinarazpena jasotzen duen egunetik, gutxienez hogeit hamar egun baliouduneko epea izango du ohar edo behaketak egiteko. Jakinarazpenean zehaztuko da behaketak aurkezteko gehieneko epea.

2. 2. artikuluko 1. paragrafoaren arabera edozein erabaki hartu ondoren, dagokion eragile ekonomikoari eta Batzordeari jakinaraziko zaio, eragile ekonomikoaren eskutik behaketak jasotzeko epea amaitu eta hogeit hamar egun baliouduneko epean, artikuluko honetako 1. paragrafoak xedatutakoari jarraiki. Erabakia hartzean behaketa edo ohar horiek kontuan hartu beharko dira, erabakia zer arrazoitan oinarrituta hartzen den azaldu beharko da, baita eragile ekonomikoak emandako argumentuak ukatzeko arrazoiak ere, halakorik balego; baita artikuluko honetako 1. paragrafoan aipatzen diren froga tekniko edo zientifikoak ere.

Gaia oso konplexua izategatik horretarako arrazoi argiak badaude, erakunde eskudunak beste hogeit hamar egun balioudunetan luzatu ahal izango du lehen paragrafoan aipatzen den epea, baina behin bakarrik. Luzapen hori behar bezala motibatuta egon beharko da, eta eragile ekonomikoari jakinarazi beharko zaio, hasierako epea amaitu baino lehen.

2. artikuluko 1. paragrafoaren arabera hartutako edozein erabakitan, estatu kide horretan indarrean dauden errekurtsio-bideak zein diren azaldu beharko da, baita errekurtsio-bide horretan aplikatzen diren epeak ere. Erabaki horren errekurtsioa aurkeztu ahal izango da estatu mailako organo juridikzionalen edo bestelako helegite-erakundeen aurrean.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

3. 1. paragrafoan xedatutakoari jarraiki, eragile ekonomikoari jakinarazpena egin ondoren, azkenean erakunde eskudunak 2. artikuluko 1. paragrafoaren arabera erabakirik ez hartzea erabakitzen badu, horren berri emango dio dagokion eragile ekonomikoari.

4. 2. paragrafoan xedatutako epean, erakunde eskudunak eragile ekonomikoari 2. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako erabakirik jakinarazten ez badio, artikuluko 1. paragrafoan aipatutako arau teknikoari dagokionez, produktua estatu kidean modu legalean merkaturatuta dagoela joko da.

7. artikulua

Produktu baten merkaturatzea aldi baterako etetea

1. Kapitulu honetan xedatutako prozedurak irauten duen bitartean, erakunde eskudunak ez dio produktu hori edo produktu-mota hori aldi batean merkaturatzeari utziko, baldin eta baldintza hauetako bat betetzen ez bada:

a) Erabilera-baldintza arruntetan edo aurreikusitako erabilera-baldintzetan, produktu horrek edo produktu-mota horrek segurtasunaren eta erabiltzaileen osasunaren aurkako arrisku handia sortzen badu.

b) Moralitate edo segurtasun publikoari buruzko arrazoiak direla-eta, estatu kidean debeku orokorra badago produktu hori edo produktu-mota hori merkaturatzeko.

2. Estatu kideko erakunde eskudunak berehala jakinaraziko die 8. artikulua araberaren arabera identifikatutako eragile ekonomikoari eta Batzordeari artikuluko 1. paragrafoan aipatutako etena. Artikulu honetako 1. paragrafoa a) idatz-zatian aipatutako kasuetan, jakinarazpenarekin batera, justifikazio tekniko edo zientifikoa ere eman beharko da.

3. Artikulu honen arabera produktu bat merkaturatzea debekatzen duen erabakiaren aurkako errekurtoa aurkeztu ahal izango da estatu mailako organo jurisdikzionaletan edo bestelako helegite-erakundeetan.

8. artikulua

Eragile ekonomikoarentzako informazioa

4, 6 eta 7. artikuluetan eragile ekonomiko kontzeptua aipatzen denean, honakoari aipamena egiten zaiola ulertuko da:

a) Produktuaren fabrikatzailea, baldin eta Erkidegoan badago; edo bestela, produktua merkatura sartu duen pertsona edo horretarako baimena erakunde eskudunari eskatu diona.

b) Erakunde eskudunak ezin baditu zehaztu a) idatz-zatian aipatutako eragile ekonomikoaren nortasuna nahiz harremanetarako datuak, fabrikatzailearen ordezkaria, baldin eta fabrikatzailea Erkidegoan kokatuta ez badago; eta Erkidegoan fabrikatzaile horren ordezkari ez badago, produktuaren inportatzailea.

c) Erakunde eskudunak a) eta b) idatz-zatietan aipatutako eragile ekonomikoetako baten nortasuna eta harremanetarako datuak zehaztu ezin baditu, hornidura-kateko beste profesional bat, baldin eta profesional horren jarduerak eragina badu aplikatutako arau teknikoak araututako produktuaren ezaugarrietan.

d) Erakunde eskudunak a), b) eta c) idatz-zatietan aipatutako eragile ekonomikoetako baten nortasuna eta harremanetarako datuak zehaztu ezin baditu, hornidura-kateko beste profesional bat, profesional horren jarduerak eraginik izan ez arren aplikatutako arau teknikoak araututako produktuaren ezaugarrietan.

3. KAPITULUA

PRODUKTUEN HARREMAN-PUNTUAK

9. artikulua

Produktuen harreman-puntuak ezartzea

1. Estatu kideek produktuen harreman-puntuak ezarriko dituzte beren lurraldean, eta horien harreman-informazioa jakinaraziko die gainerako estatu kideei eta Batzordeari.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2. Batzordeak produktuen harreman-puntuen zerrenda bat osatuko du, aldian behin eguneratuko du, eta *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean* argitaratuko du. Halaber, Batzordeak informazio horren berri emango du webgune baten bitartez.

10. artikulua

Zereginak

1. Produktuen harreman-puntuek informazio hau eman beharko dute, besteak beste eragile ekonomiko batek edo beste estatu kide bateko erakunde eskudun batek hala eskatuta:

a) Produktuen harreman-puntua kokatutako lurraldean produktu-mota jakin batean aplikagarriak diren arau teknikoak eta, estatu kide horretako legediaren arabera, produktu-mota horrek alde aurreko baimena behar duen. Halaber, elkarrekiko aitopenen printzipioari buruzko informazioa eta Erregelamendu honek estatu kide horretan duen aplikazioari buruzko informazioa ere eman beharko da.

b) Estatu kide horretako erakunde eskudunen harremanetarako datuak, horiekin harreman zuzena ezartzeko, baita estatu kide horren lurraldean arau teknikoaren aplikazioa egiaztatzeko ardura duten erakundeen datuak ere.

c) Erakunde eskudunen eta eragile ekonomikoen artean auzirik badago, estatu kideko lurraldean orokorrean eskuragarri dauden errekurso-bideak.

2. Produktuen harreman-puntuek 1. paragrafoan aipatutako eskaera bat jasotzen badute, horiei erantzuteko gehienez 15 eguneko epea dute.

3. Eragile ekonomiko batek produktu bat legalki merkaturatu duen estatu kidean kokatutako produktuen harreman-puntuak, eragile ekonomikoari edo erakunde eskudunari buruzko informazioa eta oharra eman ahal izango ditu, 6. artikuluan xedatutakoaren arabera.

4. Produktuen harreman-puntuek ez dute ezer kobratuko 1. paragrafoan aipatutako informazioa emateagatik.

11. artikulua

Sare telematikoa

Batzordeak, 13. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako kontsulta-prozedurari jarraiki, sare telematiko bat ezarri ahal izango du Erregelamendu honetan produktuen harreman-puntuaren eta estatu kideetako erakunde eskudunen artean informazioa trukatzeko ezarritako xedapenak betetzeko.

4. KAPITULUA

AZKEN XEDAPENAK

12. artikulua

Txostena aurkeztean bete beharrekoak

1. Estatu kideek Erregelamendu honen aplikazioaren berri emango diote, urtean behin, Batzordeari. Txosten horren barne, informazio hau eman beharko da:

a) 6. artikuluko 1. paragrafoak xedatutakoaren arabera bidalitako jakinarazpen-kopurua, eta ukitutako produktu-mota.

b) 6. artikuluko 2. paragrafoak xedatutakoaren arabera hartutako erabakiei buruzko informazio nahikoa, erabakiaren justifikazioa eta ukitutako produktu-mota barne.

c) 6. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoaren arabera hartutako erabaki-kopurua, eta ukitutako produktu-motak.

2. Estatu kideek 1. paragrafoaren arabera emandako informazioaren arabera, Batzordeak 6. artikuluko 2. paragrafoaren arabera hartutako erabakiak aztertuko ditu eta horiek justifikatuta dauden ebaluatuko du.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

3. Gehienez 2012ko maiatzaren 13an, eta handik aurrera bost urtez behin, Erregelamendu honen aplikazioa berrikusiko du Batzordeak, eta txosten bat aurkeztuko die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari. Beharrezkoa bada, Batzordeak salgaien joan-etorri askea hobetzeko proposamenak aurkeztuko ditu, txosten horrekin batera.

4. Batzordeak Erkidegoaren harmonizazio-legendetik at dauden produktuen zerrenda bat osatu eta argitaratuko du, eta aldiari behin eguneratuko du. Halaber, Batzordeak zerrenda horren berri emango du webgune baten bitartez.

13. artikulua

Komitearen prozedura

1. Batzordeak Komite baten aholkularitza izango du, eta Komite hori estatu kideen ordezkariak osatuko dute, eta Batzordearen ordezkaria izango du lehendakari.

2. Artikulu hau aipagai den kasuetan, aplikagarri izango da 1999/468/EE Erabakiaren 3 bis artikuluan xedatutako kontsulta-prozedura, Erabaki horren 7. artikuluko 3. paragrafoan eta 8. artikuluan xedatutakoa betez.

14. artikulua

Indargabetzea

2009ko maiatzaren 13tik aurrera, 3052/95/EE Erabakia indargabetuta geratzen da.

15. artikulua

Indarrean sartzea eta aplikazioa

Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratzen denetik hogeit hamar egunera jarriko da indarrean Erregelamendu hau.

2009ko maiatzaren 13tik aurrera izango da aplikagarria.

Erregelamendu honetako atal guztiak nahitaez bete beharrekoak izango dira eta estatu kide bakoitzean zuzenean ezartzekoak.

Estrasburgon eginga, 2008ko uztailaren 9an.

Europako Parlamentuaren izenean

Presidentea

H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean

Presidentea

J.-P. JOUYET